



*Basauriko kaleetan mobilizatu ziren atzo, Edesa Industrialeko langileek bizi duten egoera larria salatzeko. Izango dugun etorkizun iluna ere salatzeko eta Basaurik jasango duen enplegu galera, egoera hau konpontzen ez bada. Berriro diogu enpresaren kudeaketa txarra izan dela egoera honetara eraman gaituena eta proiektua bideragarria dela"; adierazi dute langileen ordezkariak.*

Basauriko Edesa Industrialeko langileen hitzetan, "duela bi hilabetetik hona gure kontratuak eteteko EEEda jasaten ari gara. Hau konpontzen ez bada plantillaren kaleratze kolektiboarekin amaituko da. Gainera, soldatak zor dizkigute";

CNA-Cataren aldetik informazio argiaren falta jasaten ari direla salatu dute. "Proiektu serio bat ez dagoenez, egunero aldatuz doazen hipotesiak baino ez dira, Zuzendaritzaren aldetik gardentasun falta osoa dagoelarik";, adierazi dute.

—